

### PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	AERONAUTIKAKO SEGURTASUNA ETA LANEKO ETA INGURUMENEN ARRISKUEN PREBENTZIOA (Zeharkakoa)	Iraupena	30
		Espezifikoa	
Kodea	UF0960		
Lanbide-arloa	GARRAIOA ETA IBILGAILUEN MANTENTZE-LANAK		
Lanbide-eremua	Aeronautika		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Aeronautikako mantentze-lan osagarriak	Maila	1
Prestakuntza-modulua	Aireontzi-lantegiko lan osagarriak.	Iraupena	210
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Sistema mekanikoen eta aireontzietako fluidoentzako mantentze-lan osagarriak.	Iraupena	50
	Aireontzietako motorren eta helizeen mantentze-lan osagarriak.		40
	Aireontzietako sistema elektrikoentzako mantentze-lan osagarriak.		60
	Aireontzi-barrualdea hornitzeko mantentze-lan osagarriak.		30

#### A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC1316\_1 AIREONTZI-LANTEGIKO MANTENTZE- ETA ZERBITZU-LAN OSAGARRIAK EGITEA gaitasun-ataleko LB4 lanbide-burutzapenarekin.

#### B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

##### Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Hegaldi-lineako/arrapalako eta hangarreko lan-arriskuen prebentzioari buruz indarrean den araudia —orokorra eta hegazkinei buruzko espezifikoa— identifikatzea.

- E1.1 Aireontzietan lan egiteari buruzko arrisku orokorrak deskribatzea.
- E1.2 Arrisku horiek saihesteko babes-neurriak hartzea, lanpostuari dagokion mailan.
- E1.3 Aireontzien kanpoaldean lan egiteak dituen arrisku espezifikoak identifikatzea.
- E1.4 Arrisku horiek saihesteko babes-neurriak hartzea, lanpostuari dagokion mailan.
- E1.5 Hangarrean dauden aireontzietan lan egiteari buruzko arrisku orokorrak deskribatzea.
- E1.6 Arrisku horiek saihesteko babes-neurriak hartzea, lanpostuari dagokion mailan.

A2: Airez nabigatzeko egokitasunari buruz nazioartean eta Espainian indarrean diren araudi zibilak eta militarrek identifikatzea.

- E12.1 Araudi hori ez betetzeak dakartzen arriskuak identifikatzea.
- E12.2 Airez nabigatzeko egokitasunari buruzko araudia betetzea, lanpostuari dagokion mailan, eta ezarritako protokoloaren arabera babes-neurriak hartzea.

A3: Langileei kontzientzia harraraztea lan egiteko jardunbide onak betetzeko beharrez ingurumena zaintzeko.

- E13.1 Lan honen ondoriozko elementu kutsatzaileak ezagutzea.
- E13.2 Elementu kutsatzaile horien kalteak saihesteko babes-neurriak hartzea, lanpostuari dagokion mailan.

##### Edukiak

##### 1 Lan-arriskuen prebentzioa.

- Segurtasunari eta higienerari buruz indarrean diren lan-arriskuen prebentzioari buruzko legea eta araudia. Lanean nahitaez bete beharrekoa.
- Prebentzio-jardueraren integrazioa.
- Lana eta osasuna.
- Lan-kondizioak, kontzeptua, kondizioak eta arrisku-faktoreak.
- Arrisku-seinalizazioa. Arau horiek jasotzen duten informazioa eta gomendioa.
- Arauak ez betez gero, kalte pertsonalak eta materialak zenbaterainokoak izan daitezkeen.
- Kutsatzaile fisikoak. Saikapena.
- Babes-ekipoak.
- Agente kimikoak.
- Agente biologikoak.
- Suteak.
- Lan-kargak.
- Lan-osasuna eta haren zaintza.
- Lehen laguntza.

- Arauak ez betetzeak dakarren ardura zibila eta kriminala.
- Segurtasun-elementuak maneiatzea eta kasu bakoitzean zertarako izan daitezkeen erabilgarriak.

## 2 Airez nabigatzeko egokitasunari buruzko araudia.

- Airez nabigatzeko egokitasunari buruz nazioartean eta Espainian indarrean diren araudiak.
- Aireko araudi militarrik.
- Aireko araudi zibilak.

## 3 Ingurumen-segurtasuna.

- Hondakinen tratamendua.
- Hondakin-edukiontzi motei buruzko araudia.
- UNE77-801-9 ingurumen-kudeaketa.
- Ingurumen-politika.
- Ingurumen-efektuak.
- Ekokudeaketari eta Ekoikuskaritzei buruzko Europako Araudia (EMAS) ISO14001.
- Arrisku naturalak eta teknologikoak.
- Ingurune hidrikoaren kutsadura eta haren prebentzioa.
- Atmosferaren kutsadura, kutsadura-iturriak eta haren prebentzioa.
- Arazketa-sistemak.

### C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Sartzeko irizpiderik gabe.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Aeronautikako mantentze-lan osagarriak